

KOSTU EGITURAREN GARAPENA

Gure aterki ontziaren kostuak kalkulatzeko hainbat gauza hartu behar ditugu kontuan. Lehenik eta behin, materiala gorde eta montajea egiteko gure taldeko baten gurasoek duten lokalaren zati bat erabiliko genuke eta 200€ inguru ordainduko genituzke hilero. Horretaz gain, gure aterki ontziaren kaxa egiteko plastiko gogor berziklatua beharko genuke eta horrekin gure ontziaren prototipoa egitea eskatuko dugu beste enpresa bateri eta kostua 1500€ ingurukoa izango da. Hala ere, behin prototipoa egiterakoan kaxa bakoitzaren prezioa 30€ -koa izango da gutxi gora behera. Bestalde, lehorgailu automatikoa, hau da, motorra ekoiztea 25€ balio lituzke eta produktua funtzionatzeko beharrezkoak diuen hainbat osagaien prezioa 13€ ingurukoa da: babes termikoa 2€, filtroa 1€, aire-hodiak 2€ eta energia iturria 8€. Amaitzeko, gure kabuz muntaia egiteko beharrezko erramintek 1000€ inguru balioko lukete.